



Herri kirolak
eta bertsoak
Azkorte-
ko ermitan, Santa
Kruz egunean

Gure esku dago jaialdia Urnietan, herriko kultur gileen eskutik



Larunbat honetan iluntzeko 19:30etan hasita, Saroben. Sarrerak bi eurotan dagoeneko salgai daude.

Erabakitze eskubidearen aldeko ekimenak han eta hemen sortzen ari dira, helburu nagusia-ekin: ekainaren 8an Durango-Iruñea eskuz esku lotzea. Urnietan ekimen beteko lan taldea osatu da eta asteburu honetan kultur ekitaldia antolatu dute. Musika, dantza, bertsoa..., osagai interesgarri ugari izango ditu.

Urnietarrak bezalaxe, eskualdeko gainerako herritarrek ere emanaldia ikustera gonbidatuta daude. Sarrerak dagoeneko salgai daude, 2 euroko prezioan, honako salto-



HITZORDU GEHIAGO ANDOAINEN ETA URNIETAN

GIZA-KATEA ANDOAINEN. Maiatzaren 17an, eguerdiko 12:00tan Goikoplazan hasita. Metroa eskuratzeko tokiak: Aralai, Ernaitza, Ikeltatz, Keinu, Li eta Urrats. **MAHAI-INGURUA URNIETAN.** Asteburu honetako jaialdiaz gain, Maddalen Iriarte kazetariak mahai-ingurua bideratuko du. Maiatzaren 14an izango da Lekaion, 20:00etatik aurrera.

Ikusleak ikuskizun paregabeaz gozatuko du, taula gainetik hainbat eta hainbat kultur gile igaroko direlako

kietan: Sarobe, Muazpi, Trazos, Kantoi, Amailur eta Xauzar. Azken sarrerak, lehenago agortzen ez badira, larunbatean bertan Saroben salgai jarriko dituzte, arratsaldeko 18:30etatik aurrera.

Ikusleak ikuskizun paregabeaz gozatuko du, taula gainetik hainbat eta hainbat kultur gile igaroko delako. Besteak beste, Peio Martin eta Beñat Zinkunegi txalapartariak, Fermin Argiñarena bertsolaria, Buruntzantzan Batukada Taldea, Petra Elser eta Julian Cobzaru musikariak, Juankar Erasun eta Koro Berasategi aktore lanetan, Egape Dantza Taldea, Joxeba Lizeagaren bakarrikizketak Monika Redondo biolinjoleak lagunduta,...

Bukaera ezin hobea emango diote jaialdiari, Anabas taldeak *Gure Esku Dago* ekimenaren abestia zuzenean eskainiko baitu, Xabi San Sebastian kantari ezagunak eta Adriana Unanuek abestuta.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]

Herri artekoa hastear da

Eskuz eta palaz, Andoain herriak Gipuzkoako Herriarte-ko txapelketan parte hartuko du. Eskuz, urte bateko etenaren ostean, berriro ere bueltan dira. Gogotsu ekingo diote andoaindarrek txapelketari, ostiral honetan arratsaldeko 20:30ean Arrate pilotalekuan.

[ANDOAIN, 7. ORRIALDEA]



Konposta egiteko guneak martxan

Andoaingo Udalak konposta egiteko aukera martxan jarri du. Aurkezpena aste honetan egin zuten, Galardi haurtzaindegian ipini duten konposta gunean.

[ANDOAIN, 5. ORRIALDEA]

111 AKADEMIA: REN SARIA 2013



Maiatzaren 8an, ostegunarekin arratsaldeko 19:30etan URNIETAKO SAROBE ARETOAN. EKITALDI IREKIA.

Idazle saritua:

Miren Agur Meabe

Kristalezko begi bat eleberriagatik



SANTA KRUTZ EGUNA AZKORTEN

Azkorten Santa Krutz egunean



Kaskarra izan zen eguraldia, baina arin-arin eta fandagoa dantzatzeko gogoa erakutsi zuten bertaratutako zenbaitek.



Azkorten klasiko bihurtu diren Patxi Etxeberria eta Angel Larrañaga bertsolariei eta Xabier Alberdi trikitalariari erromeria girotzea egokitu zitzairen.



Ramon Urdangarin, Mila Fuentes eta Maialen Serra, tabernaren ardura hartu ohi duen hirokotea.



Manolo eta Peio Kañamases anaiak eta azken honen seme den Xubanek aizkolarien saioa egin zuten.

Gure esku dago (eta II)



FELIPE IZAGIRRE • URNIETA

Joan den asteko Aiurrin “Gure esku dago” ekimenaren inguruko nire hausnarketa guztiz pertsonalak plazaratu nituen. Bukieran Aberri Eguneako EAJren nahiz EH Bilduren adierazpenak aipatzen nituen. Jakin, bada, egun horietako adierazpenak egun eta momentuko berotasunaren ondorio direla, baina eman dute, asko eman ere, hizpiderako. Eta horrez aparte, nik idatzi eta gero egon dira hainbat ekimen gai horren inguruan. Eta bigarren honetan aurrekoa borobildu nahi nuke.

Nire tesia garbia zen: “Erabakitze eskubidea” ez da independentzia, ezta ere fede-

ralismoa eta beste edozein estatu forma edo egitura ere. Hori zen behintzat joan zeneko Aiurrin argi utzi nahi nuen. Eta lehen aipaturiko ekimeni buruz denetarik, baina gaia, hots, erabakitze eskubidea, txukun landu dutenak izan dira.

Ostegunetan, eta ETB 1ean *Debatea* izeneko programan, hil honen 24an, gai hori jorratu zuten. Eta, programako gidilariak edo eztabaidagai proposamen konkretu batzuk aurkeztu zituen Aberri Eguneako egunean alderdi politikoek esandakoaren arabera:

1. Aurkezleak, nik ez dakit nondik aterata, EAJ-PNVk Konfederazioa defendatzen zuela zion; Urkullu lehendakariak subiranotasun partekatua edo deitzen duena izan da.
2. Independentzia. EH Bilduk defendatzen duena.
3. Federalismoa (PSOE).
4. Autonomia (Alderdi Popularrak izan behar du).

Eztabaidan, noski, alderdi politiko guztietakoak zeuden; baina horrelako eztabaidatan gertatu ohi denez, asko hitz egin eta gutxi entzun elkarri. Ondorioa: argitasun gutxi eta eztabaida erabakitze eskubidean jarri beharrean Independentziaren onura eta kalteak aipatzen egin zuten gau osoa. Katalunia ere mila aldiz aipatzen zuten baina, beti, independentziaren alde ala kontrako jarrerak alderatuz. Nire irudiko, eztabaida hura ikus-entzun zutenek ez dakit ideia garbirik aterako zuten.

Airean izeneko programan, Jaime Otamendik zuzentzen duena, hor ere gai berbera jorratu zuten eta galdera interesgarria jaurti zien mahi-ingurua osatzen zutenei: lortuko al da ekimen honetan sentsibiltate desberdinak elkartzea? Esan bezala, galdera gustatu zitzaidan ezen aurreko zutabearen deabruaren abokatu egin nuenean zalantza

hori azaleratu nuen. Erantzuna ez zuten denek garbi, baina tira, garbi dago hori dela helburua eta lortuko dela neurri zabal batean.

Halere, eztabaidarik serioena, argiena Juan Jose Ibarretxe lehendakari ohiak, Floren Aozek eta Gemma Zabaletak eskaini zutena izan da. Bilbon izan zen. Hango kronika irakurri nuen eta gustatu egin zitzaidan, batik bat, Gemma Zabaletaren jarrera. Sozialista izanik, are gehiago. Bidena-bar, eman du zer esanik Gemmaren jarrerak.

Ez legoke gaizki herrietan horrelako mahi-inguruak antolatuko balira, alegia, sentsibiltate desberdinetako jendea eta ahal bada politikoengandik haratago.

Herritarrari pentsarazteko aukera eman behar diogula uste dut. Baina, tira, alderdi baikorra ere ikusi behar da eta itxura osoa du antolakuntza ona dela eta horrek emanen du bere fruitua.

ANTTONI KAXETAKOARI: “IN MEMORIAM”

Azken zatitxo bat aprobetxatu nahi nuke Anttoniri bi hitz eskaintzeko. Ibilbide luzea egin duzu, mende oso bat. Eta kalitatez. Hori da garrantzitsua eta, ondo zainduta. Berjondeizula!

Oroimen asko ekarri dizkiguzu Kaxetan bizitzeko suertea izan genuenoi. Guretzat, niretzat, amaordeko bat izan zinen. Lan isila, beti zerbitzuan. Baina Kaxeta zu gabe ez zen Kaxeta izan. Zuk egin duzu poetak kantatzen zuen lurraren gaineko pasartea. Hori baita denon ilusia.

Errespetuz diot gorputz fisikoa Ama Lurrak hartzen duela bere magalean, eta gainera kooi oroimen unibertsal hori geratzen zaigula.

Horregatik gustatzen zait gure artean zabaldua dagoen esaldi hori: Anttoni, adiorik ez! Oroimenean izango zaitugu.

SANTA KRUTZ EGUNA AZKORTEN

Jeronimo Elosegi, hutsik egin gabe urtero Azkorten

Jeronimo Elosegi Azkorte-ko erromerira etorri zalea da, “oso polita izaten da Santa Krutzeko erromeria, eta hutsik egin gabe agertzen gara emaztea eta biok urtero. Dotore doa aurtengoa ere. Mezetatik irten berriak gara, Urnietara etorri berria den apaizak eman du meza; jatorra eta bizkorra ematen du, eta ari da bertako jendera eta ohituretara moldatzen. Aizkolarien saioa egokitzen da orain-txe, mokadua jan bitartean. Bertsolariak eta trikitilariak ondoren.

Neu hamabost urterekin edo lehenago hasiko nintzen hona etortzen. Ermita zaharra han goian, Buruntzako gurutzerako bidean zegoenetik ezagutzen dut festa. Ermitan meza entzun, eta gero aldapan behera etortzen ginen Elorria baserri inguruan festaz gozatzen segitzera.

Larburugain baserriko semea naiz ni, Goiburu auzokoa, eta esango nuke auzo hartakoak hona etortzeko ohitura handia izan dugula beti. Azkorte-ko erromeria honek, horixe eduki du ona beti: Lasarte, Oria eta Urnieta aldeko jendea erakartzea. Andoaingoek, ordea, ez dute hainbeste teko joera, bertan ere ospatzen baitituzte Santakrutzak.

Gure garaian ez zegoen bestelako denborapasarik, eta horrelako festak izugarritzko gertaerak hartzen genituen. Lagunekin ondo pasatzera etortzen ginen, dantza saioa egitera, eta ahal zuenak nesketan egitera. Nik ez nuen bertan ezagutu gerora nire emaztea izango zena. Andoaindarra da bera, eta neronek sartu nion hona etortzeko estimazioa. Lehenbizi, Santa Krutz ermita honetan bertan ezkondu ginen, eta ondoren, Urnietan bertan jarri ginen bizitzten.

Lastima! Gero eta jende gu-



Gazte garaian ermitan meza entzun, eta gero aldapan behera joaten ziren Elorria baserri ingurura festaz gozatzen segitzera.

txiako biltzen gara goiko parte honetan erromeria egunean. Zer esanik ez eguraldiak laguntzen ez duenean, gaur bezala! Betikoak bildu gara gaur. Biharko erromeria, Lasarte-Oriako jendeak antolatzen duen horretarako eguraldia garbia iragarri dute, eta izango da jende etorria. Geu ere etortzekoak gara; izan ere, politikak izaten dira bai bata eta bai bestea, diferenteak, nork bere ezaugarriak izaten dituelako.

Eguraldiak jendea hoztu edo berotu egin dezake, baina garbi dagoena da bertan behera doazela antzeko erromeriak. Edo-

“Emaztea eta biok Santa Krutzeko ermita honetan bertan ezkondu eta ondoren Urnietan jarri ginen bizitzen”

zein lekuetara zoazela ere, gu bezalako jubilatuak eta baserri-tar girokoak topatuko dituzu gehienak. Ikusita dago ermitaren baten inguruan antolatzen diren meza, erromeri, bertso saio eta herri kirolek ez dutela gazteen arreta pizten. Ilunbarretik aurrera mugitzen da gazteria, bestelako jokaera dauka eta zaila dago horri buelta ematea”.



Jeronimorentzat Azkorte-ko erromeria honek, horixe eduki du ona beti: Lasarte, Oria eta Urnieta aldeko jendea erakartzea.

Etxeberria eta Larrañaga bertsotan

Bertso saioaren aurretik, aizkolarien eta egur lanketaren erakustaldia behar baino gehiago luzatu zen. Hori hizpide hartuta, bertsotan ekin zioten Etxeberriak eta Larrañagak.

[Etxeberria]
Berandu xamar bagatoz baina ez gera egon ahaztuta, baina bitartean entretenitu egondu gera lotuta. Aizkolaria eraman dute gaur eguadirako festa, baina bertsorik gabe uztia gure lege ona ezta.

[Larrañaga]
Arrazoi dezu berandu baina garaia dela hasteko, aizkolaria gertu zeuden bai zuk dena erakusteko. egualdiare eduki degu oso aurpegi tristeko, saio motx-motx bat egin behar degu denak konforme uzteko.

[Etxeberria]
Lehen ere hemen izanak gera makinatxo bat urtian, ta aurten ere etorri gera gu gaur zuekin batian. Beti izan da bertso saioa Aizkorte-ko apartian, eta gaur ere beti bezela egiten saia gaitian.

[Larrañaga]
Hemengo berri kontu kontari esan diogu alkarri. kanpora ere eman nahi degu gertatu danaren berri. Kontratu duna beharko degu orain enterauta jarri, aizkolaria gonbidatu baina egur gutxio ekarri.

[Etxeberria]
Bai Larrañaga baina ni hortan oso konforme ez nago, erremedia nere iritziz horretarako badago.

Egurra ekarri bildurrik gabe eta ados hortan nago, baina ia hor bilatzen diran aizkolaria gehiago.

[Larrañaga]
Tamaina eta asmatutzea ez da erraza izaten, baina badakit lan guztietan gehiegi nola zeukaten. Bertsotan ere saiatzen gera gauza politikak esaten, al baldin bada entzulegoai gusto guztiak ematen,

[Etxeberria]
Orain artean sekula ez gendun aurtengo markarik egin, eta hau ere esan behar det istorian geldidadin. Hamaika aldiz egondu gera hemen goxo ta atsegin, eta gaur berriz bertsuak baino lehenau jendeak alde egin.

[Larrañaga]
Ia zertxobait balio duen bertsolarien esanak, lehen esan det pozikan utzi hoiek baitira afanak. Arrazoi dezu autobusean dezentte dira juanak, ia penare izango dute gaur gelditu ez diranak.

[Etxeberria]
Etortzen dira burura jaunak ez dakit zenbait kasketa, horregatikan sortzen zaizkigu guri hainbeste hizketa. Ebiak ere atertu digu eguzkirik ere ez da, eta txaloa mereziko du hemen ederki gaude ta.

“Agur ta gehiago berriz bazkal ondorako” kantatuz bi bertsolariek amaiera eman zioten lehen saioari. Bazkalosterako utzi zuten bigarren saioa. Bertso hauek eta gehiago ikusgai daude Aiurri.com gunean.

ERABAKITZEKO ESKUBIDEAK

BAI

Larunbata 10 denok Donostiara!
18:00etan Konstin

Maiatzak 12 HITZALDIA
“Troikaren Politiken eragina Euskal Herrian”
URNIETA Kultur Etxea 19:00etan

Maiatzak 21 EKITALDIA
ANDOAIN Zumea Plazan 19:00etan

EMAN BOTOA

LARUNBAT HONETAN SAROBEN, ARRATSALDEKO 19:30ETAN HASITA

Kultur ekitaldia **Gure Esku Dago** ekimenak antolatuta

Datorren larunbatean, arratsaldeko 19:30ean hasita, Saroben, Urnietako Gure Esku Dago ekimenaren lantaldeak antolatutako kultur emanaldia burutuko da.

Kultur jarduera ezberdinekin osatutako ekitaldi zabala izango da, eta bertan parte hartuko dute herriko hainbat elkarte eta norbait. Ikusgarria izateko osagairik ez da faltako.



Buruntzantzan Batukada Taldeak erritmo biziak eskainiko ditu larunbat honetako ekitaldian.

Hasteko, bertaratzen direnek, ekimenak Urnietan grabatutako bideoa pantaila handian ikusteko aukera izango dute. Bideo honen ekoizpena **Juantxo Sardon** herritarrak egindakoa da.

Ondoren, ekitaldiaren aurkezpenaren aurretik, **Beñat Zinkunegi** eta **Peio Martinek** txalaparta saioa eskainiko dute.

Eta aurkezpenaren ondoren, **Fermin Argiñarena** bertsolariak, bertso batzuekin gozatuko ditu Saroben bildutakoen belarriak.

Duela ia urtebete herrian osatutako **Buruntzantzan Batukada taldeak**, bere erritmo alai eta dantzagarriekin, butaketatik altxatxeko gogoz jarriko du Sarobeko publikoa. Ondoren,

Petra Elserrek eta **Julian Cobzaruk** hainbat abesti eskainiko dituzte hizkuntza ezberdinetan, euskaraz abestuz amaitzeko. Petrak, ahotsa jarriko du, eta Julian, bere akordioarekin arituko da. Urnieta bizileku duten alemaniarrek, eta errumaniarrek herrian antolatzen diren ekitaldi ezberdinetan gogotsu parte hartzen dute.

Bide Ertzean, talde tolosararren "Egunen batean" abestia eskainiko da pantaila handian. Talde ezagun honek, Urnieta-ekin lotura berezia du, bere azken diskoa Saroben grabatu zuen, eta diskoaren aurkezpena ere bertan egin zuen joan zen urtarilean.

Juankar Erasun eta **Koro Berasategik**, historian zehar, iraganetik gaurdainoko bidaia eginez, per-

Kultur jarduera ezberdinekin osatutako ekitaldi zabala izango da, eta bertan parte hartuko dute herriko hainbat elkarte eta norbait

tsonaia ezberdinak interpretatuz osatutako esketxa eskainiko dute. **Izaskun Labaten** laguntza izango dute. Esketxaren bukaran, **Anabas** taldeak, herriko beste kantari batzuen laguntzarekin, abesti bat eskainiko dute.

Egape Dantza Taldeak ezin zuen kanpora geratu horrelako kultur adierazpen batean, eta bertan izango dira, bere lan oparoaren erakusle izango den saio labur bezain bikaina eskaintzeko prest.

Monika Redondo biolinjoleak

eta **Joxeba Lizeagak**, bakarriketa musikatua eskainiko eskainiko dute, herriaren historian zehar bidaiaituz.

Xabi San Sebastian abeslari donostiarrak abestiren bat edo beste eskaini ondoren, **Anabas** taldekoen txanda izango da. Bukaera ezin hobe emango diote jaialdiari, **Gure Esku Dago ekimenaren** abestia **Xabi San Sebastian** eta **Adriana Unanuek** zuzenean eskainiko baitute.

Horrenbestez, jaialdia amaituko litzateke. Sarobeko sarrean bertan, aukera izango da, jaialdiaren aurretik eta ondoren ere, datorren ekainaren 8an Iruñea eta Durango lotuko dituen giza-katerako izena emateko, eta baita ekimenaren aldeko kamisetak erosteko ere.

EMANALDIA

- Urnietako ekimenaren bideoa. (Juantxo Sardonek egina).
- Txalaparta. Peio Martin eta Beñat Zinkunegi.
- Fermin Argiñarena bertsolaria.
- Buruntzantzan Batukada Taldea.
- Petra Elser eta Julian Cobzaruren kontzertua.
- Bide Ertzean taldearen "Egunen batean" abestia.
- Juankar Erasun eta Koro Berasategiren sketxa.
- Egape Dantza Taldea.
- Monika Redondo biolinjolearekin batera, Joxeba Lizeagaren bakarriketa.
- Anabas + Xabi San Sebastian, Adriana Unanue....

Aurkezleak: Koro Berasategi, Juankar Erasun, Izaskun Labat eta Joxeba Lizeaga.

SARRERAK

Salgai 2 eurotan: Sarobe, Muazpi, Trazos, Kanto, Amailur eta Xauxar. Azken sarrerak, geratuko balira, larunbatean bertan Saroben 18:30etatik aurrera.

MAHAI-INGURUA

Maiatzaren 14an, Lekaion. Informazio osoa Aiurri honetan, *Agenda* atalean.



Anabas taldeko hainbat kide larunbateko ekitaldian izango dira.



Petra Elser eta Julian Cobzaru taula gainera igoko dira.



2014, maiatza

Aurtengoak ere gogoangarriak izan dira



ARGAKZIAK



Santakruzak gogoan



BIDEOAK



Ohi bezala saio ikusgarria eskaini zuten



Zirrara sortzen du Urki dantza taldeak Santa Krutz egunean eskaintzen duen saioak. Txistularik, dantzarik,... denen artean ikusgarritasun handia ematen diote tradizio handiko ekitaldiari.

Trainërum garaile pintxo lehiaketan



Santa Krutz egunean, lehiaketa burutu eta bi egunera, Trainërum tabernako sukaldariak pozarren zeuden pintxo lehiaketan lortutako lehen sariarekin. Gogo biziz ekin zioten, lanak hartu zituztela aitortu, eta orduak igarota ere irribarrea kendu ezinik zeuden. Hauxe sukaldean bertan Aiurri astekariari adierazitakoa: “Poz handia hartu genuen. Ez genuen espero, baina lan asko egin ondoren eskertzen da horrelako saria jasotzea. Oso gustura aritu ginen eta Txalupa izeneko pintxo maitasun handiarekin egin genuen. 130 pintxo egin genituen lehen kolpean, eta azkar batean gabe geratu ginen. Prestaketa lana eska-

tzen du eta ezinean ibili ginen arren, beste 400-450 pintxo gehiago egitea lortu genuen. Izugarritzko arrakasta izan du eta oso pozik gaude. Lehiaketan izan zuen arrakasta ikusita, jaietan zehar eta datozen egunetan ere Txalupa pintxo eskaintzen jarraitzeko asmoa dugu”. Trainërumekoek Urrats inprimategikoek emandako laguntza eskertu nahi dute.

Pintxo lehiaketak erantzun ona izan du tabernarien artean, eta baita herritarren artean ere. Taberna askotan lehiaketara aurkeztutako pintxoak agortu egin ziren. Zorionak irabazleari eta gainerako parte hartzaileei.



Atarraia.



Bastero.



Gaztelutxo.



Hiru.



Irunberri.



Migura.



Trainërum.



Txalaka.



Txindoki.



Txitibar.



Txuribeltz.



Urkiola.



Xaxi.



Zeru.

Pintxo lehiaketa Andoain
Santa Krutz jaietan.
Antolatzailea: Jai batzordea.

Lehen edizioa. 2013.
Irabazlea: Urkiola taberna.

Bigarren edizioa. 2014.
Irabazlea: Trainërum taberna.



Bakailaorik onena Kotoi elkartearena



Eli Lasa, Karnele Arruti, Fanny Jauregi eta Atsegiñe Garcia epaimahaikideak.



Kotoi elkarteko kideak izan ziren irabazleak, Peña Santa Krutz eta Batzokiaren aurretik.



Karrika elkarteko kideak.



Hogar Extremeñoeko kideak.



Irunberri elkarteko kideak.



Zumeatarra elkarteko kideak.



Batzokia elkarteko kideak.



Ontza elkarteko kideak.

Hitzordu klasikoak Santa Krutz jaietan



Koadrilen eguneko bazkaria, herriko festazaleen bilgunea





Halakoren batean koadrilen eguna eguzkipean burutuko da eta aspaldian bezala, koadrilak balkoieta bizilagueni

ur eske arituko dira. Halakoren batean Ondarreta ikastetxeko aterpea utzi eta plaza irekian egingo da bazkaria.

Eta bitartean, euria euri, koadrilen eguneko bazkaria festazaleen bilkura nagusia izango da. Hutsik egin gabe,

ehunka dira bazkarian bat egiten duten andoaindarrak.

Argazkiak: aiurri.com

Berdintasunaren aldeko pregoia



Santa Krutz jaien hasierako pregoian emakumeen berdintasunaren alde lanean jarraitzeko deia egin zuten. Berrogeita hamar urte atzera eginez, emakumezkoen danborrada kaleratu zen Santa Krutz egunean. Orduko emakumeak aurtengo

protagonista nagusi bilakatu dira. Eta aukera hori ondo baino hobeto baliatu zuten jaien hasierako adierazpenean emakumeen berdintasunaren alde lanean jarraitzeko deia luzatzeko: "Badira 50 urte lehendabiziko aldiz emakume talde bat danborradan atera ginela. Ge-



rozitik emakumeak ez ziren atera. hori dela eta emakume talde batek eserialdi bat egin behar izan zuen, parte hartu nahi zutelako. Gaur egun, aldiz, hori konpondu da. Gizonak eta emakumeak eztabaidarik gabe ateratzen dira. Baina oraindik borrokan jarraitu behar dugu-

la pentsatzen dugu, alor guztietan, berdintasuna lortu arte. Aurtengo pregoia irakurtzeko aukera guri eman digute eta hemen gaude, oso pozik, ekiteko prest. Gora Santakrutzak!".

Argazkiak, bideoa: aiurri.com



Arratsaldean ekin zioten jaiari herriko haur eta gaztetxoek. Zumea plazako taula gainetik pregoilari talde ezberdinak

igaro ziren. Bikote batek "aurtengo jaiak onenetakoak izatea espero dugu. Gora Andoain!", esaldia bota eta denek ere



"Gora!" ozenarekin erantzun zuten. Bertsotan aritu ziren pregoilariak parte hartzeko mezu garbia adierazi zuten, "Etxe-

an ez egon egun guztian lotan eta ondo ondo pasa zubi luze honetan".

Argazkiak, bideoa: aiurri.com

Emanaldi gogoangarria jaien hasieran



Musika festa, horixe izan zen Basterora apirilaren 30ean bertaratu zirenek zentzu guztietan jaso zutena. Gaurko eta atzoko musikariak gogotsu aritu ziren,

eta ikusleek modu beretsuan eskertu zuten denen kemena, gogotik txalo eginez. Los Rubi taldeari omenaldi hunkigarria eskaini zieten, plazaz plaza hasi zirela 50



urte bete zirenean. Emanaldian zehar airtortza egin nahi izan zitzaizen Alberto Agirre eta Eulogio Saldias musika eskolako bi zuzendariei ere. Olagain, Akorde

On, abesbatza, dantzariak, danborradako kideak, gonbidatu bereziak..., emanaldi borobila izan zen.

Argazkiak, bideoa: aiurri.com

Jaiak elegante bilakatzen ari dira



Iaz abiatu zen ekimen berritzailea, jai batzordeak herriatarrak elegante jantzi eta kalera irteteko deialdia egitean.

Aurtengo edizioan herritar gehiagok eman zuen elegante jantzita irteteko pausoa eta orduak igaro ahala, giroa

berotuz joan zen. Adin guztietako elegante koadrilak ikusi ahal izan ziren arratsaldean deitu zuten kalejiran.

Santa Krutz jaiak, urtez urte, elegante bilakatzen ari dira.

Argazkiak: aiurri.com

Andoaingo ereserkia hiru danborradatan



Zumeatarrakoa pregoia emateko garaian, Irunberrikoa maiatzaren lehenean eta Peña Santa Krutzekoa larunbat gauean, hiru danborradak ere Joxe Mari

Oiartzabalek konposatu duen Andoaingo ereserkia eskaintzen hasi ziren aurtengo jaietan. Horrez gain, herri danborrada irten aurretik partaideek Josetxo

Oiartzun “Rakox” zuzendaria omendu zuten. Herri danborradak hogeita bost urte egin ditu aurtien eta edizio guztietan bera izan da danborren zuzendaria.

Zumeatarra elkartekoei, bestalde, Zubiaurre etxearen parean danborra jotzen 1964an ateratako emakumeak batu zitzaizkien.

Dantza, sagardoa eta taloa jaien amaieran



Igande arratsaldea eguzkipean igaro zen, eta eskerrak! Ehunka pertsona hurbiltzen baita jaien azken eguneko sagardo lehiaketa eta talo dastaketara. Aurtengo-

an ere Zumea plaza jendez gainezka egon zen. Sagardo lehiaketari dagokionez, herrian bertan geratu zen txapela. Gaztañaga sagardotegiak irabazi zuen,

Urnietako Setien eta Eula sagardotegien aurretik. Zumeatarra elkarteko kideek botila ugari ireki zituzten, baita txistorra pintxo ugari eskaini ere. Talogileak ohi-

ko bilakatu dira Zumea plazan. Ilara luzeak sortu ziren. Egun berean Urkiko gaztetxoek saio polita eskaini zuten.

Argazkiak: aiurri.com



Argazkiak: aiurri.com

Bizikleta festa eta arrantza lehiaketa



Argazkiak: andoaingo.com



Argazkiak: aiurri.com

Andoaingo Udalak konposta egiteko guneen aurkezpena egin du

Konposta egiteko guneak martxan daude

Andoaingo Udalaren helburua 2016rako birziklapen tasa %60ra igotzea da eta horretarako konposta lantzea izango da hartuko den neurrietakoa. Lau konposta programa martxan jarri ditu: udal-eraikinetakoa, herriko auzo-konposta, landa eremuetakoa eta, azkenik, nahi duenarentzat etxeko konposta.

Andoaindar bakoitzak batz besteko kilo bat hondakin sortzen ditu egunean, eta horren %40 hondakin organikoari dagokio. Horregatik, Udalak ezinbestekotzat jo du konposta bultzatzea; batetik, zaborra sortzen den leku berberean kudeatzen delako eta, bestetik, garraioan gastatzen den energia murriztea lortzen delako. Gainera, azken helburuetako bat gizarte jasangarri batean bizitzea dela azpimarratu dute.

Konposta programarekin hasteko, Udalak lau gune ezarri ditu. Lehenik eta behin, udal eraikinetan; Galardi haurtzaindegian eta Zaharren Egoitzan, hain zuzen ere. Ikastetxeetan ere martxan jarri dira eta daagoeneko Ondarreta ikastetxea eta Aita Larramendi ikastola martxan jarri dira. Ondorengo hilabeteetan La Sallen ere hastea espero dute, ikastetxe guztietan ekimena bultzatzea beharrezkoa dela ikusten baitute. Izan ere, hondakin sortzaileak izateaz gain, birziklapena gazteen hezkuntzarako balio garrantzitsua delako eta konpostajea gazteei erakutsi beharreko ohitura ere badelako.

Auzo konpostari dagokionez, bi gune jarri dituzte; bata Etxeberrieta auzoan eta bestea Makaldegian. Etxeberrietako bizilagunek jaso dute konpostaren inguruko ikastaroa jada eta datorren hastetik aurrera gunea martxan izango da. Udalak etorkizun hurbilean auzo konposta beste auzoetara ere zabaltzeko asmoa du, batez ere, etxean konposta jartzeko aukera ez duten horientzat.

LANDA GUNEAN ERE, SORABILA-BORDABERRIN HASITA

Landa guneetan etxeko konposta ezarriko da eta, oraingoan, Sorabila Bordaerriko bizilagunei bakoitzak bere etxean konpostatzeko deia zabaltzeko dute. Ondorengo hilabeteetan deia zabaltzeko dute.



Ana Carrere alkatea eta Maider Lainez oposizioko-buruak maiatzaren 6ko agerraldian parte hartu zuten, Galardi haurtzaindegiko konposta gunean.

Goiburu, Leizotz eta Buruntza auzoetara ere. Gainera, landa-uzo ez izanagatik ere, Udalak Plazaola eta Joakin Larreta kaleen arteko etxeetan beste gune bat jartzeko aukera aurreikusten ari da.

Auzo horietako bizilagun guztiekin prozesu bera ezarriko da. Etxera gutuna bidali ondoren, Espora izeneko enpresa etxeko joango zaie konposta nola egin azaltzeko. Espora mankomunitateko hondakinen kudeaketaz arduratzen den enpresa da eta banakako ikastaroak eskainiko ditu Andoaingo hainbat etxebizitzatan.

Azkenik, Udalak programa horietan edo gune horietan sartu ez diren herritarrei ere konposta egiteko gonbitea luzatu nahi die. Eta horretarako, udaletxean eskuratu dezakete etxeko konposta nola egin erakusten duen gida. Gida horretan azaltzen da konposta zer den eta prozesua nolakoa den, non eta nola erabili behar den, konpostagailua non jartzea komeni den, konposta ondo egiteko oinarriko arauak eta go-

Udalak programa horietan edo gune horietan sartu ez diren herritarrei ere konposta egiteko gonbitea luzatu nahi die

mendioak, konpostatze-faseak, eta baita ez ohiko zerbaitek gertatuz gero egon daitezkeen irtenbideak ere.

Udalak adierazi duenez, prozesu honetan jendeak beldurra izatea logikotzat hartzen dute, eta baita ondo egin izanaren zalantza izatea ere. Hori dela eta, ingurumen teknikariak eta brigadako langileak guneak ikuskatzen egongo dira, zer falta den edo zer dagoen sobra kontrolatzeko, eta gainontzeko herritarrek ere, zalantzaren bat izanez gero, laguntza jasoko dute.

Beraz, Udalak aurrerapausu bat eman eta konposta egitera gonbidatu nahi ditu herritarrrak. Egitasmo horiekin Udalak 2016rako jarri diren helburuak lortzea espero du.

Lopez de Lacalle gogoan



Lore eskaintza egin zuten bere izena daraman parkean.

2000ko maiatzaren 7an ETak Jose Luis Lopez de Lacalle herri-rikidea tiroz hil zuen, etxeko

ataritik gertu. Geroztik, etxekoek eta lagunek oroimenean dute.



Udalaren eta Salkinen arteko hitzarmena



Maiatzan zehar luzatuko da Salkinen eskaintza, Udalak babestuta.

Udalak eta Salkinek kanpaina abiatu dute, zeinaren bitartez Salkin elkarteko kide diren dendetan egindako 5 euroko erosketak bakoitzeko, herriko

autobuseko txartel bana emango da. Modu honetara, garraio publikoaren erabilera sustatu eta herriko kontsumoa bultzatu nahi da.

Eskelak,
hileta-oharrak
Aiurri
astekarian

@diseinua@aiurri.com
☎ 943 300 732



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA

Postontzia: “Aurrekontuak”

Udal gobernuko kideak txundituta geratu ziren apirilaren 30ean burutu zen apirileko ohiko plenoan. Udaletxean egin diren bileren eta prentsaren bitartez oposizioak egin dituen adierazpenak aztertuta, aurrekontuek aurrera jarraituko ez duten susmoa bazuen Udal gobernuak, baina euren ezezkoa argudiatzeko oposizioak erabilitako arrazoiak ikusita, beste behin agerian geratu da udaletxea blokeatzeko erabaki irmoa dutela.

Legegintzaldia arrunt konplikatua izaten ari da egoera ekonomikoari dagokionez. Udal gobernuak behin baino gehiagotan eman du egoera ekonomikoaren berri, bai Ogasun batzordean, non alderdi guztiak ordezkatuak dauden, baita publikoki ere, herritarrak gonbidatuak izan diren bilera eta batzarren bitartez.

Dirudienez, ordea, oposizioiko kideak ez dira egoera horretaz guztiz jabetzen; izan ere, aurrekontuei ezezkoa emateaz gain, ez dute ez ekarpen ez-eta emendakinik ere aurkeztu diru-kontuek aurre-

ra egin dezaten. Euskal Herri osoan toki gutxitan gertatzen den egoera da hau, herri gehienetan bere aurrekontuak aurrera ateratzea lortu baitute oposiziotik egindako proposamen edo emendakinen bitartez. Egoera zeharo zentzugabea da gainera, izan ere, aurrekontuen osotasunari ezezkoa ematen diote, baina proiektuak banaka aurkeztu direnean, proiektuz proiektu, onartu egiten baitituzte.

Ez dago taxuzko arrazoirik euren itsukeria arrazoitzen duenik; Udal gobernuak beti esan du talde politikoen artean ezberdintasunak egon daitezkeela ulertzen duela, auziak enfokatzeko edo bideratzeko era diferenteak.

Baina beti erakutsi du bere borondatea proposamenak jaso, horien inguruan eztaba-datu eta akordiotara iritsiz gero, aurrekontu proposamenean sartzeko. Oposizioak ezin du baieztatu, gaur gaurkoz, eztabaida edo elkarrizketa ez dela posible izan Udal gobernuarekin, ez baitu bide eman horretarako; ez dira aurrekontuak negoziatzeko prest

agertu, eta horren erakusle da, gaiaz eztabaidatzeko bilerak egin diren arren, Udal gobernuari esan ziotela euren iritzia plenoaren egunean bertan adieraziko zutela.

Oposizioaren jarrera oso argia da: erabateko blokeoarena, Bildu-ren isolamendu politikoa eta erabaki falta antzeztu nahi izatearena; edukiz hutsalak diren terminoak entzuten ohituak gaudela: “Udal gobernuaren eraginkortasun eza”, “herriaren paralizatzea”, “kudeaketarako gaitasun eza”..., Errealitatean, ordea, ondo asko dakite Udal gobernuaren eta udal teknikarien eginahalaren ondorioz zor akumulatua erdira jaistea lortu dela (1.500.000 eurotatik 800.000 eurotara) eta aurrekontu orekatuak aurkezteko lortu dela. Gogoratu behar da Udal gobernuak ez duela aurrekontu bat bakarrik auzetatu, bi baizik: horietan lehenak uraren kudeaketa osoa Gipuzkoako Ur kontsorzioari esleitzeko aurreikusten zuen, bigarrenak berriz Udalaren esku mantentzen zuen kudeaketa hori. Eredu batek eta besteak ezberdintasun nabarmenak

Udal Gobernu taldea

dituzte, lehenengoak hainbat aldaketa eta inbertsio jasotzen dituen bitartean, bigarrenen horiek jasotzea ez baita posible. Alabaina, oposizioiko kideek uraren esleipen proposamenarekin erakutsi duten arrazoitu gabeko burugogorkeriaren aurrean, Udal gobernuak bigarren alternatiba aurkeztu du proposamen gisa; baina bistan da horrela ere ez dutela amore eman.

Udal gobernuak, errentagarritasun politikoa lortzeko estrategia gisa, arazo ekonomikoko testuinguru hau baliatzea larria dela uste du, oso oso larria. Apustu horrekin erakusten dute ez dituztela aurrekontu batzuk nahi Andoainentzat, ez dutela egoera ekonomikoa hobetzerik nahi. Jarrera guztiz deitoragarria da, horren ondorioak herritarren ongizatean nozituko direlarik.

Gogoratu behar da bigarren urtea izango dela jarraian Andoainek aurtenera egokitutako aurrekontu batzuk izango ez dituela. Aurreko aurrekontuak luzatu beharko dira, beste behin ere; 2012koak, hain

zuzen, izan ere, 2013an ere, inolako proposamen edo emendakinik gabe, ez baitzituzten diru-kontuak babestu. Hots, aurreko legegintzalditik pilatutako zorragatik egoera konplikatua bazen, are gehiago korapilatuko da orain. Are gehiago Madriletik datozen doikuntza neurriak ikusita, BEZaren igoera edo diru-kontuen jarraipena kasu.

Udal gobernuak legegintzal-di honen amaierara arte jarraituko du lanean, irmoki sinetsita Andoainek eta andoaindarrek baldintza egokietan dagoen herri bat merezi dutela, bere beharrei aurre egitea posible duena; ez da ezkutatuko eta ez du egoera konplikatzeko gauza konplikatzeko de- nean, eta egoerari aurre egingo dio herritarrek emendatzen dituzten proiektuak eta diru-kontuak aurrera atera daitezen.

Udal gobernu lanerako heldu zen udaletxera, bada garaia oposizioak hausnartu, eta lagundu dezan.

Andoain, 2014ko apirilaren 30ean



SARRERAK DAGOENeko SALGAI:

Urnieta < Kantoi, Amailur.
Andoain < Aiurri, Ernaitza.
Hernani < Ametsa.

Maiatzak 28, asteazkena
17:30. 7 euro
Egape ikastola • Urnieta

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

INISTORRA

URNIETAKO UDALA



KIROL ALBISTEAK

Juan Luis Gomez urnietarra bigarren Santa Krutz jaietako herri lasterketan



Juan Luis Gomez.



Amaia Lacalle.



Pabxi Nieto-Arantxa Ruiz.



Roger Wesney.

1	32:20	Unai Señorán (Irura)	76	44:38	Jose Mari Galan (Andoain)	118	48:46	Eneko Egibar (Andoain)
2	32:28	Juan Luis Gomez (Urnietta)	77	44:38	Begoña Cao (Andoain)	119	48:55	Marta Vega (Andoain)
3	32:31	Eduardo Gallego (Hernani)	78	44:50	Arantxa Ruiz (Andoain)	120	49:00	Armando Fernandez (Andoain)
7	34:18	Marcelo Ramirez (Andoain)	79	44:50	Rodolfo Parra (Andoain)	121	49:00	Alex Hernandez (Andoain)
9	34:26	Jon Iturralde (Andoain)	80	44:58	Mikel Nogales (Andoain)	123	49:16	Arantxa Etxezarreta (Andoain)
16	37:04	Iñaki Etxeberria (Andoain)	82	45:05	Claudia Parada (Andoain)	124	49:17	Maidier Lizarraga (Andoain)
25	37:56	Javier Lazkoz (Andoain)	83	45:09	Roger Wesney (Andoain)	126	49:32	Josu Mujika (Andoain)
31	38:43	Peio Alkorta (Andoain)	84	45:19	Emilio Aldaz (Andoain)	127	49:32	Jon L.Munain (Andoain)
33	38:52	Angel Carrasco (Andoain)	87	45:39	Jon Gabirondo (Andoain)	128	49:50	J.Manuel Talavera (Andoain)
34	38:56	Uxune Tena (Urnietta)	88	45:39	Arkaitz Urdanpilleta (Andoain)	129	50:06	Begoña Villas (Urnietta)
35	38:57	Mikel Legarreta (Urnietta)	90	45:39	Javier Gallo (Andoain)	130	50:48	Marcelo Tena (Andoain)
41	39:26	J.Julian Petrikorena (Andoain)	91	45:50	Aitor Ugartemendia (Andoain)	132	51:33	Arantxa Urretabizkaia (Andoain)
44	39:56	Javier Ruiz (Andoain)	94	45:58	Oihana Sanz (Andoain)	133	51:33	Mari Jose Nuñez (Andoain)
46	39:59	Sergio Garcia (Andoain)	97	46:06	Andoni Etxezarreta (Andoain)	134	52:28	Alberto Solana (Andoain)
48	40:17	Iker Telletxea (Andoain)	98	46:24	Igor Olazagirre (Andoain)	135	52:48	Idoia Esnaola (Urnietta)
49	40:23	Javi Parra (Andoain)	100	46:24	Iker Arana (Andoain)	136	52:53	Felix Tena (Andoain)
50	40:25	Juan Ignacio Miguel (Andoain)	101	46:37	Iñaki Guzman (Andoain)	137	52:53	Susana Fernanez (Andoain)
51	40:26	Roberto Reyes (Andoain)	102	46:38	Igor Rabadan (Andoain)	138	52:55	J.Koldobika Pelaez (Andoain)
52	40:51	J.Maria Flamarique (Andoain)	103	46:39	Jose Angel Valle (Andoain)	142	52:58	Joxean Otaño (Andoain)
55	41:03	Leire Etxezarreta (Andoain)	104	46:44	Garikoitz Agote (Andoain)	143	53:38	Jone Larrañaga (Andoain)
57	41:42	Amaia Lacalle (Andoain)	105	46:48	Xabier Pernas (Andoain)	145	53:51	Irene Jauregi (Andoain)
60	42:30	Iñaki Blanco (Andoain)	106	46:48	Rakel De Jesus (Andoain)	146	53:51	M.Goikoetxeaundia (Andoain)
62	42:59	Miren Etxezarreta (Andoain)	108	47:06	Ibon Elizasu (Andoain)	148	54:55	Ramon Fuentes (Andoain)
63	42:59	Andoni Lanz (Andoain)	109	47:08	Iker Beloki (Andoain)	149	54:55	Asier Salinas (Andoain)
66	43:40	J. Antonio Ormazabal (Andoain)	110	47:21	Edorta Irazu (Andoain)	152	58:29	Begoña Canflanca (Andoain)
67	43:46	Pabxi Nieto (Andoain)	111	47:21	Izakun Jauregi (Andoain)	153	58:29	M.L. Arregi (Andoain)
71	44:05	Roberto Rosco (Andoain)	112	47:55	Joseba Erkizia (Andoain)	154	58:29	Ane Amondarain (Andoain)
73	44:14	Luis Lopez (Andoain)	116	48:11	Nekane Minguez (Andoain)	155	58:29	Garbiñe Amotxategi (Andoain)
75	44:31	Jonathan Lopez (Urnietta)	117	48:35	Juan Sanchez (Andoain)	Argazkiak: Aiurri, Flickr		

Iturzaeta memoriala asteburuan hasiko da

Asteburu honetan jarriko da abian Iturzaeta memorialaren edizio berria, Iturzaeta batzordeak antolatu ohi duena. **PALA MOTZA** Larunbatean bi partida, arratsaldeko 17:00etatik aurrera Arraten: Vega-Perez/Plano-Bagazgoitia. Altuna-Txiki/Iradi-Garate.

TXAPELKETA HERRIKOIA

Maiatzak 10, larunbata. Sorabilla: 11:00 Amondarain-Iñaki Aitor Irazu-Ritxi. 11:20 Rekalde-Otermin Ion Jauregi-Lontxo Santa Krutz. 11:40 Pedro Moreira-Iña Barrante Mikel Rivero-Iosu Iparragirre.

12:00 Iñigo Hualde-Alain Yaben Txindoki-Alberto Elizburu. 12:20 Arteaga I-Arteaga II Asier Irastorza-Yerai Martin. 12:40 Alberto De Lucas-Gaizka Irazu G. Placencia-Ekain Gorrotxategi. 13:00 Berru-lurgi/Zabala I-Zabala II.

Maiatzak 11, igandea. Sorabilla:

16:00 Loidi I-Loidi II Imanol Borrero-Torregaray. 16:20 Joseba Etxeberria-I.Aizpuru Sagaseta-Jauregi. 16:40 Oscar Sanchez-Sergio Garcia Axier Garitao.-Unai Etxeberria. 17:00 Carlos Peris-Kike Pajares Axier Salinas-Peio Belaunzaran.

17:20 Haritz Zubillaga-Unai Legarreta Iosu Arabaolaza-Arkaitz Lasa. 17:40 Roge Migez-Javi Mayan Irigoien I-Irigoien II. 18:00 Ion Otaegi-Aitor Imaz Iker Etxebeste-Xabi Marzol. 18:20 Ugalde-Bejarano / Beloki-Arruti. 18:40 Xabier Oiartzun-Mateo Ponce Butxi Zubiarain-Joseba Maiza. 19:00 Ion Zabaleta-Demi Extebe-Andoni Tena. 19:20 Axier Pone-Luis Iturzaeta Xabier Toledo-Julen Begiristain. 19:40 Eskudero I-Eskudero II Martxel Prego-Joxe Manuel. 20:00 Andoni Alvarez-Iñaki Arruti Joseba Garmendia-A.Zabala.

Herriartekoa ostiral honetan Arrate pilotalekuan



Aurreko urteetan bezala, zaleen babesarekin aurrera egin nahi du Andoaingo taldeak. Arrate frontoia txiki geratzea ez litzateke seinale txarra izango.

Apirilaren 30ean egin zen Gipuzko-ako Herriarteko txapelketaren aurkezpena eta zozketa. Andoain herriak ordezkari bana izango du pala eta eskuzko txapelketetan. Eskuz 23 talde lehiatuko dira, eta palan 8.

ESKUZ

Andoain herriak Donostia izango du aurkari, joan-etorriko hiruna partida jokatuko. Joanekoa asteburu honetan Andoainen, eta itzulera datorren asteburuan Donostian. Etxeko lehen partidari indartsu hastea komeni da. San Fermin egunean jokatuko da finala. Gogotsu ekingo diote andoaindarrak txapelketari, ostiral honetan

20:30etan hasita, Arrate pilotalekuan. Hauexek ordezkariak:

- Kadeteak: Imanol Usandizaga eta Asier Iraola.
- Jubenilak: Aitor Gaztañaga, Alain Garcia, Mikel Arberas eta Ander Olsagasti.
- Nagusiak: Jon Eskudero, Imanol Maiza, Aritz Eskudero, Jon Jauregi eta Unai Etxeberria.
- Entrenatzailea: Andoni Alvarez.

PALA

Andoaini, palaz, Errenteria egokitu zaio final-laurdenetako kanporaketan. Joanekoa Errenterian jokatuko da maiatzaren 18ko asteburuan.

Pilotakadaz pilotakada

Euskal presoen sakabanaketaren amaiera eskatzeko "Pilotakadaz pilotakada" ekimena antolatu du Etxerat erakundeak. Eskualde mailako "txapelketa" Buruntzaldeko hainbat herritan jokatuko da. Maiatzaren 10ean Hernanin, Lasarten eta Orion, maiatzaren 11n Usurbilen eta, azkenik, maiatzaren 18an Andoainen. "Euskal Herrian dispertsio politikak inoiz baino indar gehiagorekin jarraitzen du, preso eta senideen eskubideen urraketa areagotuz. Hori guz-

tia salatu eta gure senideen eskubideak aldarrikatu eta gizarteratzera dator honako ekimena". Kirol kutsuko ekimenaren bitartez, gizartea kontzientziatu eta inplikatu nahi dute. **Maiatzak 18, igandea Andoain, Goikoplaza** 10.00: Gaztetxeko txapelketa. 13.30 Haur jolasak. 14.00 Bazkari herrikoa. 15.00 Helduentzako jolasak. 15.30 Gaztetxeko pilota partidak. 19.00 Argazki masiboa.

Preferenten azken txanpa

Erregional Preferentea

29. Jardunaldia, maiatzak 3-4: Urnietta 4-1 Deusto Euskalduna 4-1 Mariño

30. Jardunaldia, maiatzak 10-11: Lengokoak-Urnietta Hernani-Euskalduna

Sailkapena:

1. Usurbil	55
2. Martutene	53
3. Euskalduna	51
9. Urnietta	43

Erregionala, 1. maila. Kopa

12. Jardunaldia, maiatzak 3-4: Ontzerri 4-2 Asoleus Euskalduna B [Atsedan]

Sailkapena:

1. Gazte Azkuene	30
2. Ontzerri	26
3. Segura Goierri	22
4. Euskalduna B	11
5. Texas Lasartearra	11
6. Asoleus	9
7. Danena	9

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

Aiurri
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA

Manuel Larramendi
Kultur Bizkaria

INISTORRA

TOKIKOM

Ekoizlea:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Laguntzaileak:

Eusko Jaurilaritza

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aldizkari honek
bi udalerri hauen
dirulaguntza jasotzen du:

ANDOAINGO UDALA

URNIETAKO UDALA

Argitaratzaileak:

ERROITZ
BALTZU MUGATUA

Aiurri eskuragarri:

Ebtez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

Egoitza Orokorra:

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.com. Webgunea: www.aiurri.com

Zuzendaria:

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.com. **Erredaktoreak:** Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga eta Jon Unanue.

Diseinua:

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.com. **Publizitatea:** Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.com

Zorion agurrak, merkatu

txikia: diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com. **Lege Gordailua:** SS-1078/04. **ISSN:** 1698-4870. **Tirada:** 4.000 ale.

Kudeatzailea, banaketa

arduraduna: Garbiñe Ugarteandia. idazkaritza@aiurri.com. Tel.: 943 300 732

Banatzzaileak:

Mikel Arregi (Andoain), Gaizka Bernardo (Urnietako). **Inprimategia:** Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

ZORION AGURRAK


ZORIONAK



Eneritzek 8 urte bete zituen maiatzaren 5ean eta **Jokin**ek 11 beteiko ditu hilaren 19an. Trikitilaria eta tronpetista, a ze bi juergista. Zorionak eta muxuak etxeko guztien partetik.

ANDOAIN

ZORIONAK



Maiatzaren 4an **Jon**ek urte bat bete zuen. Zorionak etxeko guztien partetik. Muxu potolo bat.

ANDOAIN

ZORIONAK



Odile Igarrik 4 urte bete zituen maiatzaren 7an. Ondo pasa eta muxu handi bat etxeko partez!!!

ANDOAIN

ZORIONAK



Maiatzaren 14an **Angelek** urteak beteko ditu. Zorionak aitona! Etxeko partetik.

URNIETA

Oso erraza da: diseinua@aiurri.com. www.aiurri.com

ZORIONAK



Naroa Irazu Romanek maiatzaren 12an 5 urte beteiko ditu. Zorionak etxeko printzesari! Marrubizko muxuak, etxekoak.

ANDOAIN

ZORIONAK



Zorionak **Cristina** eta **aita!!!**, maiatzaren 9an 7 eta 37 urte beteiko baitituzue. Asko maite zaituztegu. Muxu handiak. Ama eta Amaia.

URNIETA



Agenda

MAIATZAREN 8TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.com

Zinema

Andoain, Bastero

- **"Philomena"**. Lar., 10. 19:30 / 22:00. Igandea, 11. 19:30. Astel., 12. 19:30 / 22:00.
- **"Turandot"**, Puccini. Opera zinema pantailan. 20:00. Maiatzak 14, asteazkena.

Urnietako, Sarobe

- **"La lego película"**. 16:00, 18:30. Maiatzak 11, igandea.

Literatura

Urnietako

- 111 Akademia saria, zeinean **Miren Agur Meabe** idazlea sarituko duten "Kristalezko begi bat" eleberriragatik. 19:30. Sarobe. Doan. Maiatzak 8, osteguna.

Andoain, Liburutegia

- Literatur solasaldia: **"Kristalezko begi bat"**. Izena emateko: liburutegia@andoain.org. Maiatzak 27, asteartea.

Erakusketa

Andoain, Bastero

- Pablo Donezar: "Hamsterra bere gorpilean". Maiatzak 9-ekainak 21.

Antzerkia

Andoain, Bastero

- **Zazpi aldiz elur** (Mikel Laboa elurretan). Tanttakaren ikuskizunean Laboaren nahiak, bizipozak, gauza intimoak, pertsonalak eta ezezagunak kontatuko dira. 21:30. 12 euro. Maiatzak 9, ostirala.

Sariketa

Urnietako, Gaztelekua

- Antia literatur sari banaketa ekitaldia. Maiatzak 9, ostirala. 19:00.

Pailazoak

Urnietako

- **Bizipoza** Pirritx eta Porrotx pailazoan berriena. Sarrera: 7 euro. Aurrez salgai: Kantoi, Amailur. 17:30. Egape ikastolako jolas toki estalian. Maiatzak 28, asteazkena.

Jaialdia

Urnietako, Sarobe

- **Gure esku dago** ekimenak kultur ekitaldia antolatuko du: abeslariak, musika, bertsoak, bideoak,... Sarrerak dagoeneko salgai. 19:30. 2 euro. Maiatzak 10, larunbata.

Odol-emaileak

Andoain

- 18:30-20:30. Anbulatorioa. Maiatzak 13, asteartea.

Tailerra

Andoain

- "Konfiantza eta harreman onak gure seme-alaba nerabeekin", Udaleko Gizarte Zerbitzuen eskutik. 10:00. Urigain. Maiatzak 10, larunbata.

Deialdia

Andoain

- Jai batzordeak San Juan jaietako txupinazoa botatzeko hautagaia herritarrekin batera aukeratu nahi du. Deialdia zabalik dago. Beraz, hautagaia proposatu nahi duenak Basterora edota Atarira jo dezake. Emaillez ere bai: kultura1@andoain.org. Azken eguna: Maiatzak 10.

Udalekuak

Urnietako

- Udalekuean izena emateko epea amaitzeko dago: Eguzkitan blai eta Kirol udalekuak. Informazioa: Bertan, Lekaio. Azken eguna: maiatzak 9.

Miguel Amas gogoan izango dute maiatzaren 18an

Berriki, Miguel Amas andoaindarra hil zela urtebete igaroda, eta hori dela eta bere lagunak datorren maiatzaren 18rako omenalditxo prestatzeko hasi dira. Besabitik goizeko 10:00etan igoko dira Etenetara, 11:00tan omenaldi-ekitaldiari ekiteko asmoz. Antolatzaileek deialdi irekia egin dute, "egun horretan Amas gogora ekarriko dugu. Hari buruzko hitz batzuk eskainiko dugu,

kantatu egingo dugu, bertsoak ere ez da faltako. Omenaldia bukatzean Mizpiradi sagardotegian bazkaria egingo dugu, Miguelek hain gogoko zuen giroan". Bazkaria 14:30tan hasiko da, eta prezioa 26 eurokoa izango da. Izena emateko azken eguna, maiatzaren 14a. Izena emateko: Begoña: 666 875 687. Juantxo: 647 143 843.

Andoaingo musika eskolan matrikulatzeko epea zabalik

Andoaingo Udal musika eskolak 2014/2015 ikasturterako matrikula kanpaina zabaldu du, eta interesatuak maiatzaren 12tik 16ra izena eman behar harko du.

Udal musika eskolan irakas-kuntza ez arautua ematen da. Horrek esan nahi du ez dela frogara edo azterketarik gaitortu behar. Orduan, bertan eskaintzen diren ikasketak, ikasle bakoitzaren gustu eta ezaguerrietara egokitzen dira.

Udal musika eskola zabalik dago adin guztietako pertsonentzat, eta musikaren munduan hasi nahi duenak, gazte nahiz helduak, aukera zabalak

dauzka: musika hizkuntza, instrumentu edo kantu orientazioa, funtsezko irakaskuntza, instrumentu taldea edo koral.

Bestalde, eskolak eskaintzen dituen ikasgaiak hauek dira: zeharkako flauta, klarineta, trompeta, tronpa, tronboia, saxofoia, baxua, gitara elektrikoa, gitara klasikoa, biolina, akordeoia, perkusioa, pianoa, organoa eta kantua.

Izen-ematea maiatzaren 12tik 16a bitartean (biak barne) zabalik izango da Basteroko bulegoetan, 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 orduen artean.

Mahai-ingurua maiatzaren 14an, Urnietako Lekaion

Gaia: Erabakitze eskubidea.

Maiatzak 14, asteazkena. Lekaio.

20:00 Luntxa.

20:30 Mahai ingurua.

Partaideak:

- Maialen Iriartek zuzenduta.
- Eguzki Urteaga. Soziologoa.
- Txente Rekondo. Herriarte politikar aditua.
- Adrian Zelaia. Ekonomikaria.

Urnietako Gure Esku Dago ekimenaren lanteldek antolatuta, datorren asteazkenean, mahai-ingurua egingo da Lekaio kultur etxean. ETB 1eko Azpimarra saioko zuzendari eta aurkezle den Maialen Iriarte arituko da mahai-ingurua zuzentzen, eta saio berean tertuliakide diren alor ezberdinak hiru aditu izango ditu alboan.

Erabakitze eskubidea ardatz hartuta, ikuspuntu ezberdinetatik jorratuko dute gaia, alde sozialetik, ekonomikotik, Eskoziako eta Kataluniako prozesuetan emandako urratsak, eta abar.

Azterketa zabal hori egiteko, Baionatik etorri da Eguzki Urteaga, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, soziologoa, eta gaiari lotutako 30en bat libururen egile dena. Berarekin batera izango dira, Bilbotik etorriko den Adrian Zelaia ekonomikaria, eta Donostiatik etorriko den Txente Rekondo, herriarte politikar aditua, eta Eskoziar bizi-tzen ari diren prozesua gertutik jarraitzen ari dena.

Mahai-inguruaren aurretik, luntxa izango da Lekaion.